



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Testuen irakaskuntza: Genevako
sekuentzia didaktikoa tresna
eraginkorra gazte eta helduentzat

Jaione Ibarra

53-58 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.07>



Testuen irakaskuntza: Genevako sekuentzia didaktikoa tresna eraginkorra gazte eta helduentzat

Ibarra, Jaione

BAM Irakasleen Unibertsitate Eskola

eta ELEBILAB UPV/EHU

jibarra@bam.edu.es

Laburpena

Azken hamarkadetan hizkuntzaren didaktikaren arloan berrikuntza nabarmenak gertatu dira, ikasleen gaitasun komunikatiboa lantzea helburu nagusi bihurtu delako. Horren ondorioz, testu-generoa izango da ikas-irakaskuntzarako oinarrizko edukia. Artikulu honetan, egunkarietako *zuzendariari gutunak* testu-generoa lantzeko, Genevako sekuentzia didaktikoaren eraginkortasuna frogatzen duen ikerketa baten berri ematen da. Tresna didaktiko hau hainbat ikerketaren objektua izan da azken urteotan. Lan honen berrikuntza unibertsitateko ikasleekin erabiltzea izan da. Sekuentzia didaktikoa eraginkorra izan da testu-genero konplexu honek eskatzen dituen abilezia diskurtsiboak eta linguistikoak ondo ikasteko eta horien inguruko hausnarketa metalinguistikoa egiteko.

Hitz gakoak: sekuentzia didaktikoa, testu-generoa, hizkuntzaren irakaskuntza, gaitasun komunikatiboa

Abstract

A lot has changed in the field of Language Teaching since developing students communicative competence became the aim of language learning. Among those changes an important one has been the place taken by the text as the core language learning unit. This article describes a study on text-based methodology using the Geneva learning-unit model for the teaching of the genre Letter to the Editor. The effectiveness of this teaching method has been the object of a number of research projects in recent years; the contribution and novelty of the research presented here is that it has been used with university students. This methodology has been proven fit to teach the linguistic skills necessary to write this argumentative genre, as well as to develop metalinguistic awareness among the learners.

Keywords: learning unit, text genre, language teaching, communicative competence

1. Sarrera eta motibazioa

Hizkuntzaren irakaskuntzan ikuspegi ezberdinak garatu izan dira; baina XX. mendeko azken hiru hamarkadetatik aurrera, ikuspegi komunikatiboa orokortu da. Dell Hymesek (1971), gaitasun komunikatiboa azaldu zuenean, testuinguruaren garrantzia azpimarratu zuen. Izan ere, ekoizten diren testuak desberdinak izango dira igorle-hartzailearen arteko harremanaren eta ezagutzaren arabera. Aldaketa honek metodologia berriak ekarri ditu hizkuntzen irakaskuntzan, hizkuntzaren gramatika hutsa irakastetik hizkuntzen erabilera eta testuen ekoizpena irakastera aldatuz.

Ikuspegi komunikatiboaren haritik EAEn eta Nafarroan indarra hartzen ari den planteamendua interakzionismo sozio-diskurtsiboa (Bronckart, 2004) da. Honen arabera, ekintza komunikatiboa praktika soziala da eta bertatik sortzen den produktua testua da. Testuak ezaugarri diskurtsibo eta linguistikoaren arabera deskribatu daitezke eta, ondorioz, irakasteko aparteko unitateak dira.

Planteamendu honek aldaketa handiak dakartza modu tradizionalan gelan egiten denarekiko. Izan ere, esaldiaren gramatika nagusi da oraindik eskola askotan, irakasleek horixe ezagutzen baitute gehien. Dakigunez, aldaketa teoriko-metodologikoei zailak izaten dira eta denboran luze irauten dute, eta hemen proposatzen den aldaketa oso sakona da. Erronkak bi mailatakoak dira: testuen funtzionamendua eta irakatsi beharreko testu-generoak ez ditugu oraindik nahikoa ezagutzen eta, beraz, irakatsi behar den objektua hobeto deskribatu behar da; eta, bestetik, testugintza nola irakatsi birpentsatu behar da. Azken erronka honen harira, badago proposamen zehatz bat testuak lantzeko: Genevako sekuentzia didaktikoa (aurrerantzean SD), hain zuzen ere. Hala ere, bere fidagarritasuna eta eraginkortasuna frogatu beharra dago.

Hemen aurkezten den ikerketak erronka horri erantzun nahi dio, eta argudiozko testu-genero bat irakasteko tresna didaktiko bat frogatu nahi du. Horretarako, lehenbizi testu-generoa deskribatu behar izan da abilezia diskurtsibo-linguistikoetan. Ikerketa honen berrikuntza irakasle-ikasketak egiten ari diren ikasleekin frogatzea izan da, orain arte ditugun esperientzia gehienak derrigorrezko hezkuntzako ikasleekin egin baitira. Ikasle hauek interes berezia dute irakasle-ikasketak egiten ari direlako eta etorkizunean euren lanbiderako metodologia honen ezagutza behar izango dutelako.

2. Arloko egoera eta helburuak

Arestian esan dugunez, ikuspegi interakzionista sozio-diskurtsiboan oinarrituz, testuak izango dira hizkuntza arloko irakas-unitateak. Baina testu enpirikoetan, euren artean antzekotasunak dauden arren, guztiak dira bereziak eta bakarrak. Aldi berean, hiztun batek testu berri bat sortu behar duenean, sozialki sortutako testu ereduaren artean aukeratzen du bere helburuetarako egokiena dena. Testu eredu horiek testu-generoak dira.

Testuen irakaskuntzari begira, testu-generoek bere barnean dauden testu enpiriko askoren ezaugarri komunak batzen dituzte. Horrela, genero baten barnean dauden testuen azterketa eginez, testu-genero horren ezaugarriak deskribatu daitezke, testu askotan berdintsu agertzen direlako. Generoen karakterizazio hori abilezia diskurtsibo-linguistikoetan eginez gero, irakasleek irakasteko edukiak finkatzeko aukera dute (Dolz eta Gagnon, 2010; Zayas, 2012). Gainera, edukiak sekuentziatzeko oso erabilgarria da, izan ere, testu-genero batzuk eskolan sarritan lantzen dira adin desberdinetan, eta karakterizazio honen laguntzaz, errazago da edukiak aukeratzea adinaren arabera. Baina, irakatsi behar diren testu-genero askoren kasuan, ez dago irakasleen eskura ezaugarritze zehatzik eta, agian horregatik, ez da izaten erraza gelako metodologiari eraldaketa sakona egiten, esaldiaren gramatikatik testuaren gramatikara pasatuz.

SD bat diseinatzeko lehen helburua generoa ondo deskribatzea da, testu liburuetan deskribatzen dena baino askoz sakonago, benetan mobilizatu behar diren goi mailako abileziak zeintzuk diren ezagutzeko. Hemen aurkeztuko den SDA diseinatzeko *Zuzendariari gutunak* testu-generoaren ezaugarritzea egin da, abilezia diskurtsibo-linguistikoetan.

Bestalde, didaktikari begira, testu-generoa ezagutzeaz gain, testu-genero hori ondo ekoizteko metodologia eraginkorra behar da. Izan ere, testuak ekoiztea lan konplexua da, hiztunak maila ezberdinetako erabakiak hartu behar baititu: batzuk, testuinguru mailakoak; beste batzuk, testuan zehar gaia eta edukia egituratzekoak; eta azkenik, ideiak modu koherentean eta kohesionatuan erlazionatzeko erabakiak daude, hizkuntza baliabide egokiak aukeratuz. Ikusten den bezala, erabaki errazenetik hasita erabakirik sofistikatuenera igaro beharra dago testu egokiak ekoizteko.

Testuak duen izaera konplexu horri aurre egiteko metodologietan ere aldatetak izan dira. Horren barruan txertatu behar dugu hemen proposatzen dugun SDA (Dolz eta Schneuwly, 1997; Dolz et al., 2001). SD hori Genevako Unibertsitateak testu-generoak irakasteko garatutako ereduaren oinarrituta egin da. Testua ekoizteko mota ezberdinetako erabakiak aldi berean hartu behar izaten dira eta eginkizun konplexu hori irakasteko lana sinplifikatzea komeni da. SD honek erabaki mota bakoitza isolatu eta ikasleen arreta ezaugarri konkretu baten jartzen du. Horregatik, testu-genero bat irakasteko, beharrezkoa da genero horren ezaugarriak ikas-eduki bihurtzea eta bakoitza modu isolatuan lantzea.

Sekuentzia mota hau frogatua izan da Lehen Hezkuntzako ikasleekin, bai Geneva inguruan eta baita gure inguruan ere (adibidez, Dolz et al., 2009; Sainz eta Garcia Azkoaga, 2001; Labayen, 2001; Sanchez et al., 2012), eta lortutako emaitzek erakutsi dute ikasleen testuak asko hobetu direla sekuentziaren eraginez artikulazio maila ezberdinetan.

Ikasle gazteetan eman den hobekuntza ikusita, lan honen helburua unibertsitate mailako ikasleentzat ere mota honetako SDA egokia eta eraginkorra dela frogatzea izan da. BAM Irakasleen Unibertsitate Eskolan, urte askotan, testu-genero batzuk irakasteko asmoz, SDak (Arriola et al., 2006) erabili diren arren, ikerketa bidez frogatu nahi izan da tresna didaktiko hau egokia dela irakasle-ikasketak egiten ari diren ikasleentzat. Izan ere, unibertsitateko ikasleek testu-genero berrietan trebatu beharra dute: testu batzuk akademikoak izango dira, unibertsitatean erabili beharrekoak, eta beste batzuk etorkizuneko lanbidearekin zerikusia izango dute, ahozkoak zein idatziak. Azken finean, hizkuntza bat uneoro garatzen da, bizitzako esparruak zabaldu ahala egoera komunikatibo berriei erantzuna eman behar zaielako.

Horren harira, unibertsitateko ikasleak direla kontuan izanik eta oinarrizko abileziak eskuratuta dituztela, helburua da eurentzat egokiagoak diren abileziak, sofistikatuagoak direnak, zein puntutaraino ikasten dituzten ikasle guztiak ikustea. Hau da, jakin nahi dugu zein motatako abilezietan dauden zailtasunak eta zein abilezia eskuratzen duten guztiak. Horrela hobeto jakingo genuke zeintzuk diren genero honen zailtasunak unibertsitateko ikasleentzat.

Lan honetan aurkeztuko diren datuak tesia egiteko egindako ikerketatik hartu dira. Tesia 2017an aurkeztu zen izen honekin: *Argudiozko testu genero baten azterketa eta esperimentazio didaktikoa*.

3. Ikerketaren muina


Arestian esan bezala, esperimentazio honetan egunkarietan argitaratzen den *Zuzendariari gutunak* testu-generoa lantzeko SD bat diseinatu da. Esperimentazioan BAMEko Lehen Hezkuntza graduko 1. mailako ikasleek parte hartu dute. Datuen azterketa egiteko talde horretako 30 ikasle zoriz aukeratu dira eta euren aurre-testuak eta ondo-testuak erabili dira; guztira 60 testu.

Sekuentzia diseinatzeko testu-generoaren azterketa zehatza beharrezkoa da eta, kasu honetan, 20 testu *Egunkaria*-n argitaratuak eta beste 40 testu *Berria*-n argitaratuak aztertu dira. Testu horien azterketa egiteko testuinguraketa, planifikazioa, testualizazioa eta ardura enuntziatiboa eragiketarik aztertu dira (Bronckart, 2004). Azterketa horretatik 41 abilezia diskurtsibo-linguistiko deskribatu dira. Horietatik sekuentzian landu diren abileziak aukeratzeko, kontuan hartu dira aurretik BAMEko Diplomaturako 2. mailako ikasleekin esperimentatu zen beste sekuentzia baten emaitzak. Lan horretatik (Ibarra, 2012) ateratako ondorioak oinarri hartuta diseinatu da SD berri bat. Bertan landu diren edukiak aukeratzeko irizpide hauek erabili dira: aurreko sekuentzian landugabeak izatea eta ikasleen produkzioetan zailtasunak erakustea. Aukeraketa horren ondorioz hauexek dira landu diren abileziak:

- Testuinguraketa I: izenburuak duen garrantziaz hausnartu, irakurleak horren arabera aukeratzeko duelako testua irakurri ala ez.
- Testuinguraketa II: igorle eta hartzailearen arteko harremana testu osoan zehar aldakorra izan daitekeenez, lehen pertsona pluralaren atzean nolako inplikazioak ikusten diren aztertu.
- Planifikazioa I: nola aurkeztu testuan gai polemikoa.
- Planifikazioa II: argudioak eraikitze bide ezberdinak aztertu.
- Testualizazioa I: argudioak ordenatzeko antolatzaileen erabilera, bereziki metadiskursoarena.

Abilezia hauek irakasteko Genevako SDaren eredu jarraitu da. Hona hemen sekuentziaren eskema:

1. irudia. BAMEko SDaren eskema (barne dokumentua), Genevako SDan oinarrituta (Dolz et al., 2001)



Irudi horretan ikusten denez hiru fase daude. Lehen fasean, sekuentziari hasiera emateko, egoera komunikatibo zehatz eta argi bat proposatu behar da. Izan ere, egoera horrek motibatzen du testuaren

ekoizpena; gainera, hauxe da modu bakarria egileak ekoitzi beharrekoa irudikatzeko. Hemen proposatutako egoera hauxe izan da:

Dakizunez, Kukutzako gaztetxea egon den eraikina bota egin dute. Gazteek bertan egin duten lana oso sakona eta egokia izan da guztien iritziz. Dena den, jabeen eskubideak gailendu egin dira.

Zelan ikusten duzu agintariak hartu duten erabakia eta horretarako erabili dituzten irizpideak? Nola ikusten duzu Udaletxeak hartu duen erabakiari buruz gazteek hartu duten jarrera?

Zure iritzia plazaratzeko, idatz ezazu gutun bat egunkarrietan argitaratzeko, eta bertan bien bitarteko jarrera bat erakuts ezazu. Zure proposamena oinarritzeko kontuan hartu batzuk eta bestek dituzten arrazoiak.

Kontsigna honekin saihestu nahi izan da ikasleek gatazkaren ikuspuntu baten kokatu eta *salaketak* bakarrik egitea. Izan ere, salaketa bakarrik eginez gero, ez dira kontuan hartzen beste alderdiak izan litzakeen argudioak eta, ondorioz, kontzesio gutxiago ager daiteke testuan.

Lehen fase honetan ikasleek euren aurre-testua idatzi dute. Testu hau garrantzitsua da, alde batetik, irakasleari aukera paregabea ematen diolako ikasleen maila eta zailtasunak jakiteko eta, beste aldetik, prozesuaren amaieran egingo den ondo-testuarekin erkatzeko balio duelako. Testu bien konparaketatik lortuko da jakitea zertan eta zenbateraino lagundu duen SDak ikasleen testuak hobetzen.

Bigarren fasean tailer ezberdinak daude. Tailer hauetan testuak eskatzen dituen abileziak berariaz landu behar dira. Esperimentazio honetarako bost tailer egin dira, arestian zerrendatutako abileziak lantzeko. Tailerren ordena irudian bezala egin da: testuinguraketatik hasi eta testualizazioan bukatuz. Sekuentzia hau hiru astetan egin da, ordu eta erdiko 6 saiotan. Tailer bakoitzean ariketa mota ezberdinak diseinatu dira eta tailerrean zehar honako hurrenkera izan dute: lehenengo, testu eredugarrien behaketa egin da; gero, manipulazio ariketak egin dira; eta, amaitzeko, trebatze ariketak. Tailer bakoitzean, amaitu aurretik, konstatazio bat atera da, hau da, esperientziatik abiatuta teorizatu egin da ariketa horren bidez. Beraz, erabiltzen den prozedura induktiboa da: ariketa mota ezberdinen bidez eta modu aktiboan lan eginda, ikasleak aurkikuntza ezberdinak egin ditu eta prozesuari amaiera emateko ikasitakoa konstataatu egin du.

Hirugarren fasean, ikasle bakoitzak tailerretan ikasitako konstatazioak kontrol-zerrenda baten batu ditu, eta hasieran egindako aurre-testua zerrenda horren arabera aztertu du. Momentu honetan ikasleak auto-ebaluazioa egin du eta, txantilo hori esker, aurre-testuan ondo eta ez hain ondo egin dituen alderdiak ikusteko gai izan da. Kasu honetan, ikasleek 15 abilezia batu dituzte zuzenketa-txantiloian, horiek izan baitira bost tailerretan landutako edukiak. Behin txantiloia bete ondoren, kontsigna berbera erabiliz, ikasleak ondo-testu bat egin du.

Sekuentziari esker ikasleek ikasi dutena zenbatekoa den jakiteko produkzio bien arteko konparaketa egin behar da. Horregatik, esperimentazioaren emaitzak lortzeko, ikasleek idatzitako aurre-testuak eta ondo-testuak aztertu dira zuzenketa-txantiloia bat erabiliz. Txantilo horretan gelan landu diren 15 edukiak hartu dira kontuan, eta ikasleek SDa egin ondoren lortu dituzten emaitzetan argi ikusi da hobekuntza nabariak daudela azken produkzioan. Izan ere, batez beste 10 abilezia ondo agertu dira ikasle guztien testuetan. Eta, gainera, ikasleen erdiek 11 abileziatik 15era bitartean egin dituzte ondo. Aurre-testuan, ostera, ondoen egin duten ikasleen erdiek 8-12 abilezia tartean daude. Emaitzarik txarrenak atera dituzten ikasleen erdiek aurre-testuan 3-8 abilezia tartean daude eta ondo-testuan 7-11 abilezia tartean daude. Beraz, ikasle guztiek lortu dituzte hobekuntzak, eta emaitzarik baxuenak lortu dituzten ikasleak dira hobekuntza nabariagoa erakutsi dutenak. Datu hauek estatistikoki esanguratsuak dira. Izan ere, batez bestekoen eta medianen arteko desberdintasunak aztertzeko t-testa eta Wilcoxon-en W froga erabili dira hurrenez hurren, eta aurre- eta ondo-testuen artean dauden emendioak esanguratsuak direla erakutsi dute % 95eko konfiantzarekin bi kasuetan ($t = -3,86506$; $P < 0,001$ eta $W = 681,0$; $P < 0,001$). Gainera, distribuzio bien arteko ezberdintasuna estatistikoki esanguratsua da % 95eko konfiantzarekin (Kolmogorov-Smirnov: estatistiko froga $K-S = 1,80739$; $P = 0,0029083$).

Datu kuantitatibo hauez gain, ikasleen ondo-testuetan honako hobekuntzak ikusi dira landu diren abilezietan: izenburuari dagokionez, ikasle guztiek jarri diote izenburu egoki bat euren testuari. Aurre-testuetan ikasleen % 5ek bakarrik jarri zuen izenburua.

Testuaren hasieran gai polemikoaren aurkezpenari erreparatu, ikasleen aurre-testuetan ikasleen % 85ek abilezia hori erakutsi du, eta ondo-testuetan % 95ek; beraz, arlo honetan kuantitatiboki ez da egon hobekuntza nabarmenik. Dena den, kualitatiboki aldaketa garrantzitsua izan da, eta testuaren berridazketan ikasle gehienek aurrekoa kopiatu beharrean, aberatsago idatzi dute atal hau.

Gauza bera gertatu da jarreraren aurkezpena egin dutenean eta testua antolatzeko formula metadiskurtsiboak erabili dituztenean ere. Hobekuntza kuantitatiboki ikasle guztietan ikusten ez den arren (% 60tik % 85era igo da), testuaren berridazketa egitean estrategia desberdinak erabili dituzte eta berridazketak aberatsagoak izan dira ikasle gehienetan.

Modalizazioaren erabilerari dagokionez, bai salaketa egiteko, zein negoziaketarako edo bestelako balorazioak egiteko, modalizazioak ugaritu egin dira ikasleen ondo-testuetan. Ikasle guztiek erabili dituzte mota ezberdinetakoak eta ugari, testuari indar gehiago emanez, batzuetan salaketa egiteko eta, beste batzuetan, jarrera negoziatzaileagoa erakutsiz euren testuetan.

Argudiatzerakoan, sekuentzian zehar behatu diren testu ereduetan agertu diren aukera ezberdinak erakutsi dira: alde batetik, argudioak bata bestearen atzetik jarrita, hierarkia erakutsiz edo ez; eta beste aldetik, argudioak kontzesioekin batera josita. Ikasleen ondo-testuetan ugarien agertu diren motak argudioak kontzesioekin eta argudioak hierarkiko lotutakoak izan dira. Garatu bako argudioak edo zerrendatutakoak ia desagertu egin dira ondo-testuetan. Dena den, ondo-testuak orokorrean luzeago eta borobilago idatzita egon dira eta, arrazoitzeko orduan, ideiak hobeto antolatuta eta argiago idatzita egon dira.

Igorle eta hartzailearen arteko harremanari dagokionez, ikasleek estrategia ezberdinak erakutsi dituzte euren testuetan. Hiru inplikazio mota aztertu dira sekuentzian, eta inork ez ditu erabili hirurak batera bere testuan. Baina, euretari mota bat edo bi ikasle guztien testuetan ikusten dira; eta aurre-testutik ondo-testura bitartean kopuruak hiru motatan igo dira.

Kortesia araei dagokienez, ikasleen emaitzak ikusita, goi mailako abilezia dela esan dezakegu, eta ikasleei testuan ondo kokatzea bereziki kostatzen zaie. Izan ere, ikasleen erdiek bakarrik erakutsi dute abilezia hau ondo-testuan, aurre-testuan baino % 10 gehiagok.

Emaitza hauetan erakusten den bezala, oso garrantzitsua da aurre-testu bat izatea ikasle bakoitzak zer hobetu duen jakiteko. Bestalde, aurre-testuak eskasak egin dituzten ikasleen ondo-testuetan ikusten dira nabarmenago hobekuntzak. Baina aurre-testu onak egin dituzten ikasleek ere hobetu egiten dituzte euren ondo-testuak, abilezien kopuruetan hobekuntza hori nabarmen ageri ez arren. Azken hauen hobekuntza testuaren kalitatean ikusten da, izan ere, ikasle hauen testuetan aurretik erakutsitako abileziak askoz aberatsago eta finago erakutsi dituzte ondo-testuan.

4. Ondorioak

Ikerketa honek SD baten fidagarritasuna erakutsi du. Horretarako, irakasle-ikasketak egiten ari diren unibertsitateko ikasleekin lan egiteko, egunkarietan argitaratzen diren *zuzendariari gutunak* testu-generoa aukeratu da. Ikasleek egindako aurre-testuetan testu-genero hau ekoizteko zailtasunak dituztela identifikatu da, eta zailtasun horiek gainditzeko SD bat diseinatu eta gelaratu da, tresna didaktiko hau eraginkorra dela frogatzearen. Ikasleen ondo-testuak aztertu dira eta bertan erakutsi dute aurre-testuan agertutako zailtasunak ondo-testuan hobeto eginda aurkeztu direla. Hobekuntza, sofistikatua diren abilezietan ikusi da. Bestalde, azpimarratzekoa da SD hauetan ikasleek aurre- eta ondo-testua ekoizteko aukera izatea: biak alderatu eta aurrerapenak ikusteko aukera izateak fidagarritasuna ematen dio baliabideari, lortutakoaren berri zehatza ematen baitigu.

Metodologia honek, gainera, unibertsitateko ikasleentzat badu balio erantsi bat. Izan ere, SDa egiterakoan izango duten esperientziak hizkuntzen irakaskuntzan eurek erabiliko dituzten printzipioetan murgiltzen ditu: batetik, sekuentzia egiten izan duen esperientzia hori erabil daiteke diseinu didaktikoari buruz aldi berean hausnartzeko; eta, bestetik, hausnarketa didaktikoa egiten denean, ikasleek sekuentziaren irudi argi bat izango dute.

Emaitzei dagokienez, ikasleen azken testuetan abilezia gehiago erakutsi dute, ikasleen hiru laurdenek sekuentzian landutako 10 edukitik gora erakutsiz. Aurre-testuan, ordea, ikasleen hiru laurden kokatzen dira 3 eta 10 edukien artean. Beraz, hobekuntza nabaria da ikasle guztien testuetan, idatzitako azken testuak aberatsagoak izan direlako kasu guztietan.

5. Etorkizunerako norabidea

Ikuspegi diskurtsiboa azken hamarkadetan ezaguna den arren, egindako bidea labur samar ikusten da, batez ere ikuspegi honetatik edukiak deskribatzeko orduan. Oraindik testu-genero asko

deskribatzeko daude eta beste asko ez daude oso zehatz deskribatuta; behintzat, ez abilezia diskurtsibo-linguistikoetan. Eta euskaraz oraindik hutsune hori handiagoa da.

Hemen aurkeztu den SDa diseinatzeko ezinbestekoa da oso argi izatea zein ezaugarri dituen testu-genero horrek, ezaugarri horiek bihurtuko direlako sekuentziaren eduki. Horretarako ahal denik eta karakterizazio aberatsena egitea komeni da, eta jardunean dauden irakasleek sarritan testu-generoen ezaugarritze falta izaten dute.

Testu-generoen ezaugarritze faltaz gain, beste zailtasun bat kontsigna egokiak asmatzea izaten da. Hau da, irakasleak ikasleei proposatzen dien ariketaren formulazioan ez da argi deskribatzen zer dela eta ekoitzi behar den eskatzen den testu hori. Izan ere, sarritan ikasleei ematen zaien kontsigna gela barrurako izaten da, eta ez da kontuan hartzen, zein garrantzitsua den egoera komunikatibo argi eta erreal bat deskribatzea testuaren ekoizpena motibatuzko. Horretarako, kontsignan argi gelditu behar da zein egoeratarako egin behar den testua. Ez da ahaztu behar ematen den kontsignaren arabera, hiztunak abilezia batzuk edo beste batzuk erakutsiko dituela bere testuan.

6. Erreferentziak

- Arriola, J., Bilbao, L., Ibarra, J., Ibarra, G., Lauzirika, A., Mielgo, R., Ocerinjauregui, J. eta Ocio, B. (2006): *Testugintza*, BAM Irakasleen Unibertsitate Eskola, Bilbao.
- Bronckart, J.P. (2004): *Actividad verbal, textos y discursos: por un interaccionismo socio-discursivo*, Fundación Infancia y Aprendizaje, Madril.
- Dolz, J. eta Schneuwly, B. (1997), “Géneros y progresión en Expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia en la Suiza francófona”, *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 11, 77-98.
- Dolz, J., Noverraz, M. eta Schneuwly, B. (2001): *S’Exprimer en français. Séquences didactiques pour l’oral et pour l’écrit*, De Boeck, Bruxelles.
- Dolz, J., Mabillard, J.P., Tobola, C. eta Vuillet, Y. (2009), “Analyse contrastée des difficultés des élèves dans la rédaction d’une réponse au courrier des lecteurs, et de leur traitement en classe”, *Revue suisse des sciences de l’éducation*, 31(3).
- Dolz, J. eta Gagnon, R. (2010), “El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito”, *Lenguaje*, 38-2, 497-527.
- Hymes, D. (1971): “On Communicative Competence”, in J.B. Pride eta J. Holmes (Arg.), *Sociolinguistics*, Penguin, London, 269-293.
- Ibarra, J. (2012), “Sekuentzia didaktikoen onurak testuak ekoizten irakasteko: Irakasle-eskolako ikasleekin egindako esperientzia baten emaitzak”, *Ikastaria*, 18, 137-152.
- Labayen, P. (2001), “Argudiozko testuen inguruko lan esperientziak ikastetxe elebidunetan”, *Hik Hasi*, 8. Monografikoa, 38-44.
- Sainz, M. eta Garcia Azkoaga, I. (2001), “Zer ikasi dute ikasleek sekuentzia didaktikoarekin? Ikasleen aurretestuak eta ondotestuak”, *Hik Hasi*, 8. Monografikoa, 85-96.
- Sanchez, V., Dolz, J. eta Borzone, A.M. (2012), “Escribir textos argumentativos desde el inicio de la escolaridad. Un análisis de textos producidos a partir de una secuencia didáctica”, *Campinas*, 51(2), 409-432. Doi: 10.1590/S0103-18132012000200008.
- Zayas, F. (2012), “Los géneros discursivos y la enseñanza de la composición escrita”, *Revista Iberoamericana de Educación*, 59, 63-85.